

AUZOLANDEGIAK. Europa osoko 24 gaztek lanean dihardute, eta hila amaitu arte ariko dira; uztailen beste 19 izan ziren

Iruña Okako aztarnategian bisita gidatuak egingo dira urte amaieratik aurrera

Arduradunen ustez, 'Oppidum'-ak turista asko erakar ditzake



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Gazteak, Iruña Okako aztarnategian lanean.

Luis Karlos Garcia | Iruña OKA

Iruña Okan (Araba) dagoen erromatarren garaiko aztarnategia jendeak bisita gidatuak egiteko irekiko dute urte amaieran, proiektuaren arduradun Eliseo Gil Zubillagak atzo *Oppidum*-en bertan jakinarazi zue-
nez.

Gil Zubillagak hedabideak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko agintariak hartu zituen atzo goizean, Gasteiz ondoko aztarnategian, non Kultura sailburu Miren Azkaratek 2002ko Auzolandegiak programaren azterketa egin zuen.

Kontseilariak eskerrak eman zizkien Iruña Okan eta Estibalizen (Araba) gaur egun lanean diharduten gazteei (50 bat) eta aurreko asteetan beste zenbait auzolandegitan aritu direnei (aurten 1.600 gaztek jardun dute; 800 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta beste hainbeste kanpoan).

Gazteen lanak zabalkundea egiteko ere balio du

Iruña Okako aztarnategiko 24 gazteak lanean ziren atzo, auzolandegia hedabideei aurkeztean (beste 19 uztailen izan ziren). Champagneko Claire, 20 urteko Arteko ikaslea, «pozarren» zebilen erromatarren aroko kokagunea azaleratzen: «Denetarik topatu dugu egunotan: hezurrezko kako bat, zeramikaren bat eta etxe bateko hormatzarra ere bai».

Gazteen lanak dezente bultzada emango dio *Oppidum*-

AUZOLANDEGIAK

Guztira, 1.600 gazte aritu dira aurten Auzolandegiak programarekin; egun, soilik Iruña Okakoan eta Estibalizkoan ari dira

i. Oraingoan, I. mendeko erromatarren egoitza bateko planta garbitzen ari da (orain arte, mila metro koadrokoa da, baina hain markada honen amaieran, indarrean dagoen komenioa bukatzean lur saila bikoiztu egingo dela kalkulatu dute).

Gil Zubillagaren ustez, gazteen ekarria ez da soilik eskuekin egiten dutena: «Nazioarteko auzolandegia denez, primeran datorkigu aztarnategiaren berri kanpoan zabaltzeko».

Izan ere, zabalkundea da, ikerketa eta kontserbazioarekin batera, Iruña Okako *Oppidum*-a dela-eta egindako Plan Artezlearen filosofiaren ardatz nagusia.

Ildo beretik, Gil Zubillagak dioenez, «argi eta garbi dago aztarnategiak turismorako bokatzen nabarmena dauka». Nolanahi ere, eredu «arkeologia ja-sangarria» izango dela zehaztu du: «Lehentasuna izango du beti aztarnategiaren kontserbazioak».

Nafarroako batzuk kenduta, Iruña Okakoa Hego Euskal Herriko adierazlerik puntakoena dela uste du, «hala kontserbazioan, nola ondare kopuruan edo turismo potentzian ere».

L.K.G. | ESTIBALITZ

Belarra moztzen nahiz paretak moldatzen aritu izan da Iban Goenaga beste urte batzuetako auzolandegietan. Aurten, berriz, «beste mundu batean» murgiltzea egokitu zaio: Estibalizko monasterio-ko liburutegiko aleak sailkatzeko lanetan. «Gustura» dabil 25 urteko azpeitiar berritsua, beste 23 gazterekin batera, eskuko fitxak betetz nahiz ordenagailuko datu-basea aberastuz; kontent, baina beti «garbitzen»; larreak-eta aurreko urteetako auzolandegietan eta liburuak orain.

Jokin urduliztarra eta Valen valentziarra ere lanean gustura zebiltzan atzo eguerdian, liburutako datuak dagokien modura ordenatzen. «Hemengo zeregina ez da soilik teklatuaz ibiltzea. Izan ere, hori aitzakia baino ez da hemen aritzen garenok ideiak nahiz kontuak elkarri trukatzeko, eta, finean, jendea eza-gutuzteko», esan digute ia batera.

Tartean, liburutegiko altxo-

ren berri izan dute; adibidez, 1505. urteko liburu bat eskue-tan hartu eta jakin-min osoz miatu zutenean. Baina, Valenek dioenez, monasterioan dena ez da lana nahiz gogartea: «Tira, hemendik kanpora pixka bat ateratzeko ere aprobetxatu behar dugu. Bestela, monasterioan egun osoz lanean aritu beharra...».


Aita Emiliano Ozaeta, Estibalizko sekretuen gidari

Ordenagailuarekin dihardute jo eta ke; Internetik gabekoa, baina: «Hobe, bestela, akaso, nabigatu eta nabigatu besterik ez genuke egingo eta!», aitortu du Jokin.

Nabigatzeko txalupa aita Emiliano Ozaeta eta santutegiko beste zenbait beneditarrek

Monasterioa, gazteek hartua

AUZOLANDEGIA. Beneditarrek Estibalizen duten santutegiko liburutegiko aleak sailkatzeko lanetan dihardute 24 gaztek



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Bi neska, Estibalizko monasterio-ko liburutegian lanean.

daukatenak. Ozaetak, Trebiñon jaiotako fraide euskaldunak, eskuzabaltasun osoz erakusten ditu Estibalizko sekretuak. San Agustinen obrei tentuz helduta, egurrezko tapakiak jotzen ditu, ia debozioz. Gero, apaletetik beste bat atera du, are kontu handiagoz. «Ale honek denetarik jasan du: sua, ura, sitsa... eta, bistan denez, baita iltzeren bat ere!». Zainketa Intentsiboen Unitatea deitzen diote holako liburuak hartzen dituen gelari.

Miren Azkarate sailburua, birtartean, bere «saltsan» dabil, aleei han-hemenka begira. Bat-batean, lodikotea eraman du Ozaetak bere altzora. Sei zuta-beetara egindako liburu da; eskuz, jakina, bi koloretan eta lau letra tiporekin, gainera. Urre kolorekoa, eta urrearen moduko oparia.

Tokia ez da nolanahikoa izan auzolandegion diharduten gazteentzat. Gaur, baina, ez dira lanean ariko; gaur Errioxan egongo dira bazkalorduan, beste altxor mota batzuen berri izan nahian...